

Asisko gutuna

2019ko uztaila.

1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

129. zenbakia

Frantziskori, Jainkoarekin bizi zuen harremanak errealitate guztiz berria ekarri zion, halako mundu pentsaezina ireki balio bezala, borborkako bizia, amairik gabeko zoriona. Horregatik guk berari begiratu eta bera bezalakoak izan nahiko genuke. Guk ere altxor horretaz gozatu nahiko genuke.

Gogoetarako gaia

Jainkoaren bizipen gozoa

Jesusek, azken afarian, bere dizipuluei esan zien: "Hau esan dizuet nire poza zuengan izan dadin, eta zuen poza erabatekoa izan dadin" (Jn 15,11).

Ez dakit Jainkoaz gozaten ikasi dugun, edo hobeto esanda, ez dakit Jainkoa egiaz gozatu dugun, letra larriz idatzi daitekeen Bizi egite-raino gugan.

Jainkoaz asko pentsatzen dugu, oso zerebrak bihurtu gara, gauza asko jakin nahi ditugu Beraz. Eta gainera antzina baino irudi positiboagoa ere badugu. Baina horrek ez digu beti horrela bizi izatera eramane. Gure pentsamoldetik harreman pertsonalera oso jauzi handia dago. Jainkoaz ondo pentsatzea garrantzitsua da, baina askoz garrantzitsuagoa da bizitzea.

Irudi positiboa gure pentsamoldetik sortuko balitz bezala, baina ez bizipenetik, erlaziotik. Beraz, irudi horrek, nahiz eta positiboa izan, ez du gure bizitzan eraginik, eta gure beldurretan murgilduta jarraitzen dugu, gure buruhauste eta zoriontasunaren bilaketetan. Jainkoa ez da guretzako bizi iturri bihurtu, gozamen iturri.

Jesusek asko azpimarratzen du hori. Berarentzat, funtsezkoa da gure beldurrak urruntzea, eta benetako xalotasunez fidatzea, haurrek bezala, edo bekatari eta prostitutek bezala, inolako eskubiderik ez dutela jakinik, Jainkoaren errukian itxaro dute, seme galduak bezala.

Eta Jesusi, Aitari buruz hitz egiten hasten denean, samurtasuna eta gozamina ateratzen zaio bere gorputz guztitik. Eskerrak ematen dizkio gauzak nola egiten dituen ikusita, eta txikiei nola agertzen dizkien ikusita, bereak dituenen bakoitzagatik eskatzen dio, bere ontasuna gorai patzen du zuzenentzat eta zuzengabeentzat isurtzen duelako euria., txunditua geratzen da bere Aitak beti lan egiten duelako, bere uste osoa Aitarengan jartzen du aldioro otoitzera bilduz, eta une larrietan ere bere eskuetan jartzen da, nahiz eta bazterrerera utzi duen sententzia izan.

Jainkoa pentsamendutik bizitzara, bihotzera, gure gune sakonenera igarotzeko unea iritsi da. Jainkoarekin bizia izatearen gozamina deskubritzeko garaia da.

Ebanjelioko pasarteak: Lk 1, 39-45

Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen: «Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!»

Frantziskotar espiritualtasuna

Nahiz eta Frantzisko dohatsuak oso gogor jokatu zuen bere gorputzarekin, bere gogo nagusia eta gorenena une oro, barrutik eta kanpotik, Jaunaren Espiritutik datorren poza izan eta mantentzea izan zen. Berak zioen Jainkoaren zerbitzaria saiatzen bada bihotzaren garbitasunetik datorren barneko eta kanpoko poza edukitzen, deabruak ezin izango dute ezer txarrik egin; alderantziz baizik, honakoa esatera behartuak aurkituko dira: "Jainkoaren zerbitzari honek bere alaitasuna mantentzen duenez bai zoritxarrean eta bai ontasunean, ezin dugu aurkitu zirrikiturik beragana sartzeko eta ezin diogu kalterik egin".

Behin batean, triste eta kopetilun ikusten zuen bere fraide lagun bati, zera esan zion: "Eska iezaiozu Jaunari itzul diezazula, bere errukiz, salbamenaren poza, ez baita inolaz ere komenigarria Jainkoaren zerbitzari bat bere anaia baten edo edonoren aurrean ozpindurik edo itxura makurrez agertzea". Eta gehitu zuen: "Noizbait ni tentaturik eta lur jota aurkitzen banaiz, pentsatzen dut nire anaiaren poztasuna ikustea nahikoa nukeela tentaziotik barne eta kanpoko poztasunera igarotzeko".

Otoitza

Amets hutsalak bilatu ditut,
Altxor hutsalak erosi ditut.
Maitasunak atxilotu nahi izan ditut.
Eta giltzaz itxi dut nire etxea,
Ez diezadaten zapaldu.
Zalantzak ziurtasun faltsuz jantzi ditut
eta nire beldurrak hiltzen saiatu naiz begiak itxiz,
baina, azkenean, berriro ere hemen nago
biluzik eta dardarka.

Zu aurkitzean dena aldatzen den arte.
Zure ebanjelioa pizten nauen sua da,
bidean jartzen nauen deia,
beragatik guztia saltzen dudana altxorra,
hain pobrea eta hain aberatsa eginez.
Zure hitzak grina pizten du.
Zure bizitza ikasgaia da
bizitzen irakasten didana,

maitatzen,
hutsera salto egiten.

Zurekin, ametsak posible dira,
altxorak infinituak,
maitasuna betirakoa.

Atea irekita dago,
eta etxea, betea,

unez
istorioz
topaketez.

Fedeak arriskatu egiten du,
eta beldurra isilarazi.

Zutaz jantzi naiz,
nire ahuldadean, zure indarra,
eta guztia bat dator ...

(José María R. Olaizola, sj)

Gutuneko azken hitzak

"Gauzarik gehienak desengainatu egiten du, harik eta sakonago begiratu arte" (Graham Greene)

2019ko uztaileko eguneroko Ebanjelioa

"Dasta eta ikus zein ona den Jauna: zorionekoa berarengan babes duena!." (34. Salmoa)

1 Mt 8, 18-22	8 Mt 9,18-26	15 Mt 10,34-11,1	22 Jn 20,1-2.11-18	29 Jn 11, 19-27
2 Mt 8, 23-27	9 Mt 9, 27-29	16 Mt 11, 20-24	23 Jn 15,1-8	30 Mt 13,36-43
3 Jn 20, 24-29	10 Mt 10,1-7	17 Mt 11, 25-27	24 Mt 13, 1-9	31 Lk 9, 18-26
4 Mt 9, 1-8	11 Mt 19,27-29	18 Mt 11,28-30	25 Mt 20, 20-28	
5 Mt 9, 9-13	12 Mt 10, 16-23	19 Mt 12, 1-8	26 Mt 13, 18-23	
6 Mt 9,14-17	13 Mt 10, 24-33	20 Mt 12, 14-21	27 Mt 13, 24-30	
7 Lk 10,1-12.17-20	14 Lk 10, 25-37	21 Lk 10,38-42	28 Lk 11, 1-13	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Uztaileko Otoitza hilaren
18an izango da (25 jaia da).